

## SEIE (Salleko Euskal Idazleen Elkarte)

Martin Lasa

### I. SARRERA GISA

#### 1. Lanaren helburua

*Euskara Mailaka Metodoa*-ren egile bezala ezagutuko dute, SEIE ezagutzen dutenek.

SEIEren aurkezpena baino gehiago, lasalletarrek euskal arazoetan eginikoaren aurkezpen bat egitea nahi luke artikulu honek: SEIE izena jaioberri bat besterik ez bait da eta, egia esateko, laburritz horren pean, *Euskara Mailaka*-tik kanpo ezer gutxi argitaratu bait da<sup>1</sup>. Bere sustraiak eta mugak adierazten dituen historia agertzen dut, beraz, hemen.

Honako galdera hauek interes bizia izango lukete: Zer dago elkarte horren atzetik? Noiz eta zertarako jaio da? Gehiago oraindik, nola jokatu dute eta jokatzen ari dira lasalletarrak Euskal Herrian? Saiatu ote dira bertakoak izaten, kanpotik zetozenak bertarakotzen? Ala arrotz bihurtu dira etxean etxekoentzat? Egin dituztenetan, noraino heldu dira...?

Maiz esaten ari da euskal literaturaren eremuan kritika bat egiteko dagoela, kritika-lanen faltan gaudela. Beste horrenbeste esan daiteke hainbat eremutan<sup>2</sup>. Adibidez, nola jokatu dute eliz erakundeek eta erlijioso-erakundeek Euskal Herrian? Nola jokatu dute alderdi politikoek euskal kulturari? Nola irakaskuntz erakundeek (estatu-eskolak, halako eta bestelako erakunde pribatuek) euskararen eta euskal kulturaren arazoetan?

Iritziak eta balorapenak sarri entzun ohi dira: asko-gutxi,

ondo-gaizki, oker-zuzen... Nahiz txaloak jo edo salaketa egin, zertan oinarrituz egiten ote den galdegingo nuke. Ezin ukatu askotxo erabiltzen direla bihozkadak eta klixeak, ez beti argituak eta zuzenak. Erakundeen euskal emaitza aurkeztu eta aztertuko duten zehazketa serioak guztiz beharrezkoak ditugulakoan nago.

Erakunde bakoitza saiatuko balitz eskuartean dituen datuak aurkezten! Monografiak, apalenak izanik ere, idatziz jartzen! Azterketa partzialak idazten! Material interesgarriak ondo zaintzen eta gordetzen! <sup>3</sup>.

Ezin nik orain, nahiko nukeen arabera eta irakurle argiari zor litzaiokeen neurrian, erantzun borobilik eman goiko galderei. Datu pila falta zaizkit behar bezalako azterketa sakon bat egiteko <sup>4</sup>. Datuak, inguruko giro orokorrago baten ikuspegitik parekatu eta konfrontatu beharko lirateke, iritzi kritiko sendo bat eman nahi izanez gero <sup>5</sup>.

Beraz, dudana emango diot irakurleari: lortu ahal izan ditudan barne-datuak, lasalletarren arteko euskal kontzientziaren prozesu historikoaren une garrantzitsuenak, han-hemenka balorapen laburren bat <sup>6</sup>.

## 2. Lasalletarren historia apur bat

Lasalletar erakundea 1680an eraikia izan zen, La Salleko Joan Bautistaren eskutik. Ehun eta berrogei urte luze igaro ziren Ipar Euskal Herriko ikastetxe batetara etorri arte, Baionara, hain zuzen ere 1820an. Pixkanaka, eskakizunen arabera eta eliz eta herri-agintarien laguntzari zor, hemeretzigarren mendean zehar Baionan, Hazparnen, Uztaritzen, Kanbon (Lapurdin); Maulen, Atharratzen (Zuberoan); Donapaleun (Nafarroa Beherean) badira lasalletarrak.

Hemeretzigarren mendeko azken hogeitamar urteetan, Frantziako ideien eta jokabideen giroa ez zitzaien erakunde erlijiosoei erosoena bihurtu, are gutxiago irakaskuntzan zihardutenei. Emile Combes-ek Gobernu-zuzendaritza zuen garaian, 1904eko uztailaren 7ko lege berri batek Kongregazio guztiei irakaskuntza debekatu zien <sup>7</sup>.

Lege horren ondorio gisa etorri zitzaigun —Ipar Euskal Herrikoek erbesteratzeko erabakia hartu ondoren— Hego Euskal Herriko ikastetxe-ugaltze azkar bat.

Joan den mendeko azken urte haietanxe, 1878an, Kongregazioak Madrilen ireki zuen penintsulako lehen ikastetxea, «Asilo

del Sdo. Corazón» izenekoa. 1887an, Gabriel de Ibarak deiturik, Deustun hasi ziren eskola ematen. Hau izan da Euskal Herrian Kongregazioak jarri duen lehena. Bi korronte, beraz, honantz zetozen; bata, Madriletik, bestea Ipar Euskal Herriatik eta Bordeletik<sup>8</sup>.

Zenbait puntutatik begiraturik, ezin aipatu gabe utzi nolako zatiketa administratibopean egon diren gure ikastetxeak Kongregazio barruan. (Kontutan har, eragin handia dutela egitura horiek bokazioen jatorri-lekurako, frailegaien hezkuntzarako, lanaren geografi hedadurarako). 1887tik 1923ra gure zenbait ikastetxe Madrileko Probintziaren zati bat ziren: Madrilen zegoen Probintziala eta aginte-zentrua; beste zenbaitek 1904/1907tik aurrera Baionakoaren nahiz Bordelekoaren zati ziren; 1923an, Valladolideko Probintzia berriaren pean jarri zituzten ikastetxe guztiak, horrela 1940ra arte iraun dutelarik. Urte horretan, «Bilboko Probintzia» eraiki zuten<sup>9</sup>.

Lasalletarrok Euskal Herrira etorri baino lehen, zenbait euskaldun Kongregazioan sartuak ziren<sup>10</sup>.

## II. JOAN DEN MENDEKO HASTAPEN URRUNAK

Oraingo SEIEk joan den mendean aurkitzen ditu bere erroak. Oso gutxi dakigu (gazteenok, bederen) Ipar Euskal Herriko lagunei buruz, are gutxiago euskal arazoetan egin zutenaz edo ez zutenaz. Gure liburutegi hornituenetan erabilgarri duguna guztiz «frantsesa» da horrelako «zertzeladak» argitzeko. Euskaldunik bazegoela, bai; hainbeste esatera heltzen dira. Hortik aurrera, ezer gutxi: ez asko edo gutxi zirenik, etab., etab.<sup>11</sup>.

Guztion artean ezagunenak bi hauek ditugu: MIXEL ELIZANBURU (Frère Innocentius), Joan Bautista olerkari famatuaren lehengusu propioa, eta ARNAUD AGIRRE IRIBARNEGARAY (Frère Juvéna-Martyr). Biak heletarrak ditugu. Biak ere, bata bestearen ondoren, Hazparneko San Jose Ikastetxean irakasle eta zuzendari izan ziren, eta euskal kulturaren alde gartsuki lan egin zuten ikaslego plurilinguistiko (lapurditar, frantses eta espainiar) bat biltzen zuen ikastetxe hartan. Mixel izan zuten irakasleztat Jean Hiriart-Urruty idazle bikainak, Lapitz-ek, Barbier-ek, Landerretzek, St. Pierre monsignoreak...<sup>12</sup> eta Elizanburu hark lagun min izan zituen Arbelbide misionesta, Broussain medikua, Zalduy-Adema olerkaria.

Ziur-ziur, irakaskuntza soilera mugatu izan balute beren lana,

ezezagunak izango litzaizkiguke gaurregun. Baina, zorionez, lan idatzia egitera ere heldu ziren<sup>13</sup>.

Elizanburuk, Baionako Lasserre baitan inprimarazi zituen: *Le-benagoko eskualdunak zer ziren* (1889. Euskal ohiturak. Moralista kutsuko pasarteak baditu)<sup>14</sup>. Erligioaren eta politikaren arteko auzia ikuspegi «txuri» monarkizale porrokatu batetik tratatzen duten lau liburuska: *Framazonak* (1890), *Frantziako hirur errepubliken ichtoria laburzki* (1890), *Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak munduan* (1890), *Frantziako bigarren eta irugarren errepublikaren ichtoria bitchia* (1891)<sup>15</sup>. Azkenik, kongregazioaren fundatzailearen biografia, *Joannes Batista Dohatsuaren bizia* (1891), eta otoitz-liburu bat, *Sakelako liburuchka edo girstino gutzientzat on den esku liburu ttipia* (1892).

Susmoa dut liburuska horiek, azken biak izan ezik, artikulu solte eran *Eskualduna* astekarian agertutakoak direla<sup>16</sup>. Arnaud Pochelou-ri esker dakigu, bai Innocentius bai Juvéna! hasiera bateko idazlari izan zirela kazeta horretan, 1886an *Le Réveil Basque* «gorri» eta errepublikazalearen aurka sortu zenetik<sup>17</sup>.

Arnaud Agirrereren liburu bat bakarra ezagutzen dugu: *Vocabulaire trilingue Français-Espagnol-Basque*, Baionan Lamaignère-k argitaraua (1899). Dударik gabe, berak prestaturikoa izan behar du *Recueil de Chants Religieux latins, basques, français, espagnols à l'usage des élèves de l'Ecole Chrétienne de Hasparren* lanak. Garbi ikusten da liburu biak Hazparneko ikastetxeko beharrei erantzun bat emateko egin zirela<sup>18</sup>.

Ba ote zegoen Baionako probintzia hartan euskal arazoetarako plangintza eta helburu programaturik? Nola jokatzen zen beste anaien ikastetxetan? Galderetan geratu behar, honetaz ezer gutxi bait dakigu.

### III. HASTAPEN HURBILAK

#### 1. Bigarren Errepublika garaian<sup>19</sup>

Ez dut uste gehiegikeria bat esatea denik, Hego Euskal Herriko lasalletarrok nahikoa berandu arte ez dugula plangintza orokorrik planteatu euskal kultura mailan. Probintzia mailan baino gehiago jokatu da, nire ustez, pertsonen iritziaren eta bultzadaren arabera. Herriagandik hurbil egoten saiatu gara, gure kongregazioaren izpirituari atxekiz. Horri esker, anaiak euskaldunak, bertako eskoletan egon diren neurrian, pertsonalki eta nolabait euskara

erabiltzen saiatu dira: Kristau-Ikasbidea ikasteko eta adierazterakoan, abestiak erakusterakoan, otoitzetan, ikaslearekiko eta gura-soekiko harremanetan...

Indarrak bateratzeko eta elkarlan sendoagoa planteatzeko interes haundiko bi une ikusten ditut gure artean: II. Errepublika, lehenbizi, eta 1960tik honako urteak, gero.

Errepublika bitartean, zenbait euskaldun hemendik kanpo dabilta, Valladolideko probintziak zituen ikastetxeetan barreiatu-rik (euskaldun zaharrenak, agian, Madrileko probintzian, Andaluzian bat baino gehiago). Bertako gehientsuenak, gazteak oraindik eta ausartak, Zumarragan, Beasainen, Andoainen, Zarautzen, Azkoitian, Irunen, Donostian, Bilbon, Barakaldon, La Arboledan.

Suspertzaile eta aitzindari bezala, J. B. Mintegiaga agertzen da; berak lagundurik (harreman ofizialetan batez ere), J. M. Iziar, M. Oyarzabal, L. M. Zelaia eta Iñaki Olabeaga<sup>20</sup>.

Lan interesgarri bati —textugintzari— eman zioten hasiera gure artean. «La Instrucción Popular» edo «Bruño» izenpean, Eusko Ikaskuntzaren onespina lortzen saiatuz, *Aurtxoan Kristau Ikastia* (1932), *Zenbakiztia. Lengaien Idaxtia* (1933), *Lege zarra eta lege berria* (1933), «Colección de Cánticos Sagrados»erako euskarazko osagarria (1933). Gerra zibilak atarian utzi zituen: *Gramática Vasca* (M. Oyarzabalena), *Euskal Irakurgaien Antologia* (J. M. Iziar eta I. Olabeagarena)<sup>21</sup>.

Eskoletan egindakoaz gain<sup>22</sup>, euskarari seriotasun bat eman nahirik, titulapenak lortzeari garrantzia eman zioten. Hala, Beasainen ziharduten bitartean, Bartolo Otaegik, Luis Mari Sarasuak eta I. Olabeagak 1934ean, Eusko Ikaskuntzaren Euskal Irakasle titulua lortzen dute.

Gutziz interesgarria Errepublika garai hori, eta emankorra, gerra zibilak altxaturiko ekaitz-erasoak hainbat pauso eta asmo on suntsitu ez balitu. Aipatutako horietako batzuk, salatuak, pertsegituak, hiltzeko bilatuak, eskapa egin behar izan zuten<sup>23</sup>.

## 2. 1940-1960. urteak

Gerraoste triste lazgarria. Itxaropen-izpi bat askoren barnetik: azkenik, irrikaz desiraturiko —eta hainbat katramilak oztopaturiko «Bilboko Barrutia» onartua eta ofizialdua izan zen<sup>24</sup>. Baionatarra orduko Nagusi Orokorra, hemengoak asko maite zituen (eta hemengoek maite zutena).

Urte latzak, hala ere, euskal kulturarako. 40-50 hamarkadan

ezer gutxi egin zelakoan nago, giro orokorra hotza zelako, bate-tik; eta, egia esan behar bestetik, euskaldun irakasleek beraiek ere, 1940 aurretik ikasketak Euskal Herritik kanpo eginak zirelako, estatalismoz kutsatutako giroan eta euskara galduta edo erabat galtzeko zorian zuten, alboan kontrakoak izanik ere. Ekintza «sinboliko» bat, «Colección de Motetes» bilduman zenbait euskal kanta sartu ziren gerra biharamunean bertantxe. Une jakinetan (45ean, 48an) zertxobait lagundu zitzaien ikasle euskaldunei euskara gal ez zezaten. Ez zen, ordea, jarraitasunik ikusi, eta zenbat baserri-tar egon ote ziren komentuetan etxeko euskara galtzeko arrisku bizian —eta batzuk galdu ere egin zuten— laguntza faltaz, politika egoki baten faltaz? <sup>25</sup>.

Tamalez, pauso juridiko esperantzarri hura, euskararen ar-loan ez zen ia somatu.

50-60. urteetan gauzak pixkaka hobeagotuz joan ziren. Ez nuke esango ekintza «pertsionalak», «sakabanatuak», «leku konkretuekin uztartuak» izatetik pasatzen direla, baina gehituz doaz: eskoletan euskaldunekn jokabide zuzenagoa eramaten da (otoitzak, Kristau-Ikasbidea direla eta); ordukoa da «*Gure Otoitza*» liburusk-a <sup>26</sup>, *Kristau-Ikasbidea*, *Lege zarra eta lege berria*-ren berrargital-pena; Olabeagak, bere zuzendaritza garaian, Zarautzen euskal el-kargo bat benetan euskaldun izatera bultzatzen du, eta euskal giro polit bat sartzen du ikastetxean.

Irungo Martindozenean, 50... 53... urteetan ikaslegai euskal-dunekin zenbait ekintza bultzatzen dira: euskaraz hitzegitea, aita Zabalaren Gramatika ikastea, Biblia-zatiak buruz ikastea. Ekintza horien atzetik, gure Nikolas Alzolaren esku apala nabari da, bera jarri bait zuten urte haietan ikaslegaien irakasle bezala; ez zen, ordea, beste munduko irakasle horietakoa eta beste leku batetara eraman zuten, formazio-etxekoen kalterako <sup>27</sup>. Ez dakit oker nabilen esango dudanarekin, baina uste dut Mikel Lasari berari ere euskal zaletasunean lagundu ziola.

1950etik aurrera indartu ziren euskal kulturarako Irungo San Martzial ikastetxeko aldizkaria (Nikolas Alzolaren eskutik), Bil-boko Santiago Apostol-eko *Enlace Colegial* izenekoa (Jokin Otaegi-ren artikuluei zor), eta batez ere *Nora...?*, osoki euskaraz idatzi-riko ikastetxearteko aldizkaria <sup>28</sup>. Nikolas Alzola, Jokin Otaegi, Joxe Mari Arzallus izan ziren aldizkari honen zuzendariak.

1956tik aurrera hasi ziren Alzolaren urterik oparoenak, BRSBAP eta *El Bidasoa* lekuko, Irungo San Martzialen irakasten zegoen bitartean.

1956tik aurrera ere lasalletar bat agertzen zaigu *JAKIN* aldizkariaren lehen ekinaldian, 2. zenbakitik aurrera hain zuzen: Mikel Lasa, Tejares-Salamancatik; ez hango giroak euskaraz idazteko laguntzen ziolako, bere euskal sen sutsuak agintzen ziolako baizik<sup>30</sup>.

1958-59 ikasturtean I. Olabeagaren eragina nabaria izan zen La Salle Eneako frailegaien artean, euskarari eta euskal giroari begira.

Jose Pablo Basterretxearen probintzialgo garaian (1953tik aurrera) euskal lanek aurrerakada izan zuten, berak babesturik: eskoletan, idazlanetan, Irungo La Salle Eneako giroan, dantzataldeak sortaraztean. 1960. urtea pasata, karguan bukatu baino lehen, La Salle Enearen 50. urtemuga ospatzeko, *Gure Etxea* poema idatz zion Olabeagari eta lasalletar musikagile bikain agertzen zen Tomas Aragüés gazteari jar erazi zion musika. Irunen eta Bilbon aurkeztu zen poema sinfoniko hori, eta disko bat grabatu eta finantziatu zuen.

#### IV. GORPUTZ-KONTZIENTZIA (1960-1969)

60-69 hamar urteotan, Vatikanoko Batzarrearen orientabideak eta gure Batzarre Nagusiaren ondorioak biziki sentitu ziren Euskal Herriko lasalletarron artean. Belaunaldi gazteengan, batez ere, txinpartaren indarra izan zuten honako ideia hauek: Euskal Herriaren errotu beharra, irakaskuntza herrikoiei eta euskaldun baten beharra, erlijioso-bizitza euskaldunago bihurtu beharra. Ez zen hori honen edo haren pentsakizun soila. Mugimendu sendo bat gorputz-haragituz joan zen. Ez zen beldurrik oztopoen aurrean aurpegia ateratzeko...

Zenbait ikastetxe euskara ematen hasi ziren (kasu, Herrerako San Luis Ikastetxea, 1967an); Probintziako aldizkaria<sup>30</sup> elebidun bihurtu zen (talde berri baten indarrez, Probintziako Kontseiluak onarturik), inkesta bat zabaldu zitzaizen gurasoei euskarari buruz pentsatzen zutena eskatuz, gero erantzunen arabera ikastetxeak aldatzeko ondorioak aldarrikatuz eta gora eramanez; Euskal Batzorde ez-ofizial bat eratu zen<sup>31</sup>, mentalizatzen, suspertzen, bultzatzen eta salatzen lan franko egin zuena, eta euskarazko materialak idazten ere bai; formazio-etxean lan bikaina egin zen euskal musikaren eta euskararen arloan<sup>32</sup>, Joxe Erzibengoak batez ere, euskalduntze bidea sendotu zuen aspirantadoan plangintza bat praktikara eramanez<sup>33</sup>; Bilboko Santiago Apóstol ikastetxean «iraultza» tinko bat aurrera eraman zen, euskaldun bideetatik sar zedin<sup>34</sup>.

1968an, garrantzizko gertakizun bat: Probintzia mailako lehenengo Batzarrea egin zen. Garrantzizkoa diot, lehendabizikotz erabaki ofizial batzu hartu bait ziren euskararen arloan: ikastetxeak euskarari ateak irekitzearen alde, irakaslegai prozesuan zirenei euskara eta euskal kultura ematearen alde eta, elkargoetan otoitzak euskaraz egitearen alde.

Orain arte, Probintziaren bizitzan zehar, pertsonak izan dute garrantzia euskararen arloan. Hemendik aurrera, aginte-egiturak sartzen dira jokoan.

## V. OFIZIALTASUNAREN LORPENA (1969...)

SEIE izena bera urteotakoa da. Aipaturiko mugimenduaren barnetik sortu eta indartu da euskaraz idazteko grina eta zaletasuna. Horra hor bizirik Salleko Euskal Idazleen Elkarteak.

Garrantzi haundikoak 1969-1971. urteak. Bigarren Batzarrea Probintzian. «Euskal Batzordea» ofizialtzen da, Probintzia barneko erakunde bezala, Batzorde-burua izendatzen da (Jose Manuel Agirrezabalaga), aurrekontu bat ezartzen zaio, lan-plangintza bat martxan jartzen da helburu hauek lortu nahirik: irakasleak presatatu, lasalletarrak euskaldundu, euskal publikapenen informazioa zabaldu, textugintza bultzatu, euskal liburutegia sortu, kultura eta irakaskuntzako erakundeekin harremanetan egon, ereduak ikastetxe elebidun bat sortu. Borrokari joera batetik pedagogi alorretara makurtzen da batzordea.

Agirrezabalagaren garaian harturiko abiada oso sendoa izan da, bai ordurako baita gerorako ere. Ikastetxeei laguntzeko, euskararen irakaskuntzarako plangintza bat egin zen maila edo etapa bakoitzerako hainbeste ordu proposatuz, eta zenbait material egin ziren: *Historia de la Literatura Vasca, Euskal Literaturaren Historia* (1971)<sup>35</sup>, *Apuntes de Historia del Pueblo Vasco* (1971-72), *Euskal Herriko Geografia* (1975), *Euskal Herriaren Historia* (1975), azken hiru hauek pro manuscripto atereaz; irakasleen arteko topaketak ugaldun ziren; Probintzia barneko komunikapen ofizial guztia elebidun bihurtu zen; *Unánimes* gure aldizkariak pedagogia, pastoraltza, literatur gaiak eta elkarte-kronikak euskaraz ematen hasi zen; formazio-etxeko gazteei euskarari eta euskal kulturari buruzko ikastaldi programatuak eman zitzaizkien; 1971tik aurrera urteoro gogojardunak euskaraz egiten hasi ziren, batez beste talde bakoitzean 50-60 lasalletar euskaldun (eta euskaldun berri) bildurik; *Kanta Jaunari* otoitz-abestien bilduma argitaratu

genuen<sup>36</sup>; elkarteak (komunidadeak) euskaldunago bihurtuz joan dira, han eta hemen guztiz euskaldundu arte; 1971tik hona, udaldian ikastaro intentsiboak eman izan zaizkie ia urteoro irakasleei, euskalduntze-alfabetatze eta D mailakoentzat; *Euskara Mailaka Metodoa* sortu, experimentatu eta zuzendu zen<sup>37</sup>; Zarauzko ikastetxea elebidun-eredu bezala bultzatu zen; Euskal Liburutegia, kontsulta eta mailegu-zerbitzu bezala, Zarautzen jarri zen<sup>38</sup>.

Ezin dut ezkutuan utzi esango dudan hau: Probintzia erlijiosoaren funtzionamenduak eragin handia izan du aurrerabide honetan. Aginte-estiloa oso pertsonalista izan da gure erakundean Kontziliario arte (Kontseilu probintziala baldin bazegoen ere). Ordurarte, Probintzialak berak aginte eta eragin handia zuen. Kontzilioak eta kongregazioko Batzarre Nagusiak egoera hori guztiz aldatu zuen, guztion partehartzeari so eginik eta egitura-estiloak aldatuz: adibidez, Probintzi Batzarreak sortaraziz eta ordezkariak hautapen bidez izendatuz. Egia osoa esango baldin badut, erakunde berri horiekin, Probintzialak hurrengo lau urteetan Probintziak eraman behar duen bidea argi eta garbi ikusten du, Batzarrean harturiko erabakiei esker. 1940tik hona, izan ditugun Probintzialak euskaldunak izan dira, eta Basterretxeaz geroztik euskal arazoen gero eta bultzagileagoak. Guztion artean gailen ikusten dugu Alberto Zabala azkoitiarra, euskal arazoetan argiena eta sutuena. Jesus Eguskiza oraingo Probintziala ere erne eta zuzen dabil, pauso bikainak emanez euskararen arazoak bultzatzeko.

## VI. GAURKO EGITURA, LAN ETA ASMOAK

Gaur, SEIE lasalletar hezitzaile eta pedagogoen kolektibo bat da. Hezkuntz arloko zenbait sailetan espezializatuta gaudenok osatzen dugu. Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan, hogei bat ikastetxetan dihardugu<sup>39</sup>.

Lan hauetan gabilta: irakaskuntzan batez ere, textugintzan eta euskara lan-tresna bihurtzen, irakasleago euskalduntzen eta alfabetatzen. Ez gara argitaletxe, irakasle-elkarte baizik.

*Elebitasunerako Idazkaritza* bat dugu, Probintziako erakunde ofizial bezala: idazkari ia guztiz liberatua du, aurrekontu dexente bat, eta zenbait talde tekniko<sup>40</sup>.

Hona ikasturterako helburuak: ikastetxeak euskalduntzeko eta elebitasuna garatzeko gertu egon (ikastaldiak, bilerak); irakasleen formaziorako ekintzak bultzatu (Heziera-Jardunaldiak, 83ko Uda-ko Ikastaldiak, irakasleen arteko topaketak, elebitasun-topaketak-

ra zenbait bidaltzea, erlijioso eta irakasle batzuk euskararako libe-  
ratzea —aurten, urte osorako zortzi lasalletar liberatu ditugu);  
talde teknikoen lana aurrera eraman; erakundeekin harremanetan  
jardun; elkargoei eta ikastetxeei informazioak banatu.

Hona hemen aipatu ditudan talde teknikoak:

- *Pentsamendu eta plangintza taldea*: idazkaritzaren hari na-  
gusiak eta ekintza zehatzak proposatu eta horiek errealitate bihur-  
tzeko aholkuak ematen ditu.

- *Euskara taldea*: *Euskara Mailaka* metodoaren ardura da-  
rama (testu-liburuak, kaxeteak, filmak). Irakurgai-liburuskak  
argitaratzen hasi da.

- *Entzun-Ikus taldea*: *Euskal Herria* diapositiba-bilduma  
Ikastola-Federakuntzaren bitartez argitaratzen dabil, 1.200 diapo-  
sitiba, fitxa tekniko bana); lan monografikoak prestatuko ditu;  
bideo-talde berri bat lanean jarriko da.

- *Itzulpenetarako taldea*: Probintzia barneko txosten ofizial  
guztiak itzultzen ditu. Zenbait liburu itzuli ditu, argitaratzeko  
asmoz.

- *Musika taldea*: berria da. Erlijio eta katekesirako, eskola-  
rako eta elkarte-topaketetarako abestiak sortzea/biltzea du helbu-  
rutzat.

- *Euskal Liburutegia eta Liburuen informaziorako taldea*: fi-  
txatze-lanetan dabil, fondoak erabiltzeko kriterioak finkatuko ditu,  
mailegu-zerbitzu bat ireki nahi du; publikapen berrien informa-  
zio pedagogikoko zerbitzu bati hasiera emango dio.

- *Euskal Folklorea taldea*: berria da. Euskal dantzak eta mu-  
sikagailuak bultzatu nahi ditu irakaskuntzan.

- *Erljio eta Pastoraltza taldea*: Idazkaritzarekin batera erli-  
jio-materialak prestatzen hasi da euskaraz.

Haueaz gain, lasalletar euskaldunen batzarre irekia eta festa  
eguna: informazioak zabaltzeko, oharrak eta beharrak jasotzeko,  
festa-giroan suspertzeko, gure tituludunak ospatzeko.

1971tik hona material eta ekintza hauek egin dira:

- *Euskara Mailaka* metodoa: bost mailatako testu-liburu,  
filmina eta kaxeteak; *Ariketak*, *Mintzabidea*; oraintxe, irakurgai-  
liburu saila (dena, Mensajerok argitaratua). Egileak: J. Erziben-  
goa, P. Ezkiaga, M. Alkorta, X. Kalbo, P. Alkain, J. Lezamiz,  
A. Zenarruzabeitia; hasieran, J. A. Sarriegi.

- *Euskal Literatura*, 4 liburu (Mensajero, Kimu-Saila). J.  
Erzibengoa, P. Ezkiaga).

- *Ipuinak 1-2-3, Atalak 2-3* (berdin). (N. Alzola).
- *Alfabetatzen* (Mikel Alkorta-X. Galarraga).
- *Aditza lantzen* (J. B. Bergara).
- *Mintza Praktika Ikastaldia* (J. Erzibengoa, J. Otaegi, J. Lezamiz, A. Zenarruzabeitia, K. Aranberri).
- *Geografia: Giza Geografia. Geografia Ekonomikoa* (J. Iturburu).
- *Euskal Herriaren Historia* (E. Zabaleta).
- *Eguzkitiko energia* (P. Alkain).
- *Konmutazioa. Sistema digitalak* (Mikel Alkorta).
- *Natur Zientziak* (P. Alkain).
- *Euskal Herria. Diapositiba-bilduma* (S. Arzelus, E. Zabaleta, I. Zelaia, J. K. Alonso, J. M. Ortiz de Urbina, M. Larrañaga).
- *Erlijio-testua* (P. Alkain).
- *La Salle gure artean bizirik* (P. Alkain, J. M. Agirrezabalaga).
- *Herria Oibuka* (Talde lana).
- *Kanta Jaunari 1, 2* (M. Lasa, J. M. Agirrezabalaga, M. Goenaga).
- *Aste Santua 1981*.
- *Otoitzak*.
- *Pedagogia gaur* (J. Erzibengoa).
- *Gogoetan, Maite dedana, Biotz-Iturritik* (I. Olabeaga).
- (Elkar-lanean jardunda, J. M. Agirrezabalaga: *Haur-Katekesia*).
- (Elkar-lanean Legazpiko beste zenbaitekin, I. Zelaia, J. Otaegi, J. Lezamiz, J. J. G. Txabarri, F. Presa: *Legazpi*).
- J. M. Arrietak Hezkuntza Saileko Eskolaurreko eta Hasiera-Zikloko Programakuntzak egiterakoan parte hartu du.

Ekintza aipagarrienetako bat, bukatzeko: euskara (maila guztietan) eta metodologi ikastaldiak, erruz eman dira: Donostian, Iruñean, Bilbon, Eskoriatzan, Goierriin, Irunen, Elizondon...

Hara hemen gure lorpen eta hutsegiteak, gure ilunaldi eta argiak. Gaur, lan egiteko gogo bizi bat dugu.

M. L.

2. «Euskal masoneriaren kondaira, egiteko dadukagu oraindik (bestelako askorena bezelatsu)»: Ik. J. INTXAUSTI: *Iraultzaren bildotik*, Jakin, 1972, 51. or., 36. oh.

3. Joan Mari Torrealdaiak galdetu zidan, orain gutxi dela, non aurki zitzaiken garai batean lasalletarrok irakaskuntzan erabilitako testu-liburuak, testu horien azpi-ideologiari buruz azterketa bat egiteko asmoz. Ez zaigu, tamalez, erraz izango ez jakitea, ez aurkitzea. Eta lepoa baietz erantzun berdin samarra eman behar beste askok.

4. Lasalletarren Euskal Herriko historiak nahikoa aldaketa ezagutu ditu. Muga nadin, adibidez, Probintzi egitura aipatzera. Madrileko Probintziak (probintzia erlijiosoak, esan nahi da) ireki zuen lehenengo ikastetxea Euskal Herrian; gero, Baiona-Donostiakoak zerbait ikastetxe, Bordele-Zaragozakoak beste zerbait gehiago; geroago Valladolid-eko Probintziaren pean jarri zituzten guztiak; eta, azkenik, 1940an, Bilboko Probintzia eraiki zen.

Donostia, Griñón, Valladolid, Talence eta Maule, eta Erromako etxeburuko artxiboetan ondo miatu beharko litzateke, Euskal Herriari buruz gordetzen dituzten datuak ezagutu nahiko balira; baita ikastetxe eta elkarte bakoitzeko artxibo-paperak ere, ikastetxe bakoitzeko historia zehatz jabetzeko. Guzti hori, euskal ikuspegi batetik, egiteko dago. Adibidez, nork daki historian zehar Euskal Herrian jardun duten lasalletarren jaioterria, edo berorien formazio-lekua, edo gure Herriak kongregazioari eman dion pertsona-kopurua, edo bertan sorturiko bokazioak non izan diren heziak eta lanean nondik nora ibili diren?

5. Oso interesgarriak dira, Ipar Euskal Herriko giroa ezagutzeko J. INTXAUSTI: *Iraultzaren bildotik*, Jakin, 1972 (historia aldetik); eta J. HIRIART-URRUTYREN bi antologiak: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin, 1971; *Zezenak errepublikan*, Jakin, 1972 (historiaren beraren idazle testigu on baten kronika). Irakaskuntzaren ikuspuntutik sakondu nahian, ik. lehen-dabizikoa, 119. orrialdetik aurrera, eta erlijio elkarten ikuspuntutik, ibid., 140. or. eta hurrengoak.

6. Artikulu hau beste lan luzeago baten laburpen egokitu bat besterik ez da.

7. Ik. aipaturiko *Iraultzaren bildotik*, 174-178. orr.

8. Madrilekoek irekitakoak hauek dira: Bilboko Iturrubide (1888), Bilboko Santiago Apóstol (1893), Algorta (1904), Santurtzi (1913). Goitik zetozenek irekiak: Zarautz eta Azkoitia (1904), Elgoibar, Eibar, Donostiako San Bernardo (1905), Irun eta Los Angeles (1906), La Arboleta (1907), Beasain, Martindozenea-Irun, Elgeta, Gallarta (1909), Donostia-Herrez (1913) Zumarraga (1914). Ikus S. GALLEGO: *Sembraron con amor. «La Salle», Centenario en España (1878-1978)*, 1978, 846-852. eta 880-882. orr.

9. «Bilbo» izena daramala eta guzti, une honetantxe Euskal Herriko lau probintziak, Errioxa, Zaragoza eta Hueska sartzen dira. Berez burura datorkio edonori, orain urte batzu Euskal Erlijiosoen eginiko proposamendua gero Euskal Herriko Probintziales ere errepikatua (hau da, probintzia erlijiosoak beren hesi-mugak herrien beharrei zuzenago uztartu beharrean direla), edo auzi-mauzi bizian dagoen Eliz Probintziaren arazoa... Gure Probintzian, biziki planteatu izan da arazo hau 1974etik hona. Auziak ia hartan dirau, zerbait puntutan antzinako egitura monolitikoa deseginda eskualdekatu baldin bada ere.

10. Hala, Juan A. Etxeberría (anai Idesbaud), donostiarra; Patxi eta Jokin Etxeberría, iruratarrak; Pedro Goitiandia, nabarniztarra; eta hiru oiar-tzuar: Martin Zalakain, Pedro eta Joan Beldarrain. Guztiak, Bordelen, Parisen edo Toulouse-n sartuak. Ikus S. GALLEGO, ibid., 37. or.

11. Bakarrik, «Notices Nécrologiques» biografiatarra joanik, edo «Fiches des Frères», edo «Personnel» koadernoetara, legoke hori jakiterik.

12. Ikus P. LAFITTE, Hiriart-Urruty-ren bizitzea: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* liburuan, 17. or. Eta L. VILLASANTE, ik. Euskera XXII (1977) 323. or.

13. Beraren biografiak honela dio lan idatzi horri buruz: «...le f. INNOCENTIOUS donnait ses préférences à l'histoire profane. Il avait lu et compulsé la plupart des auteurs les plus estimés. Avec notre autorisation, il publia, en langue basque, une histoire très appréciée des révolutions de la France depuis 1789, et quelques autres brochures, parmi lesquelles une biographie de notre Bienheureux Fondateur» (historia gaia begiko zuela; nagusien baimenarekin euskaraz liburuxka batzu argitaratu zituela...): *Notices Nécrologiques trimestrielles*, 467. zb. (1895), Paris, 9. or.

14. Liburu honen eskuizkribua Baionan dago: «Euskararen Lekukotarako prestatzen zabizen lana publikatu baino lehen, Haritschelharrek, Baionako Euskal Museoan dago manuskrito...» (J. L. LIZUNDIAK Nikolas Alzolari, 1982-Martxoa-5eko gutun batetan).

15. L. VILLASANTEk honela dio: «Monarkiari zion amodio gartsu eta itsua, Errepublikari zion herra, masoienganako gorrotoa, baita egilearen anima-bakuntasuna ere» Iñaki Olabeagari 1958-II-5eko gutun batean).

16. Honela dio Elizanburuk berak *Lehenagoko...*-ari dagokionez: «Berzte norbaitek daut erranen zer chedetara egin dudán liburu hau edo ager arazi demboran huntako kapituluak (Gehienak agertu dire Eskualduna ize-na duen berrikarian)» (Ikus VI. or.).

17. Ik. «*Mintzaira...*», 23-42. orr.

18. Mixeli buruzko bibliografia osotu bat: M. LASA: «Salleko Joan Bautistari goratzerreak euskaraz (II)» in *Unánimes*, 1979 (abendua), 117-118. orr.

Mixel Elizanbururi buruzko gure Erromako artxibo paperen dokumentu batzu ditut nik fotokopiatuak (Hazparneko ikastetxeari dagozkionak; Mixelen beraren zenbait gutun, etab.).

19. Tamalez, ez dut inongo argibiderik 1904etik errepublikara bitarteko urteei buruz iritzi zuzen bat emateko. Ezta lehenagotik Bilboko ikastetxeetan egin zen eta egin ez zenari buruz iritzi bat emateko ere. Zertzelada soil batzu besterik ez: Zarautzen abesten zen partituraren bat (ik. M. LASA: «Salleko Joan Bautistari goratzerreak euskaraz (IV)», in *Unánimes*, 1981 (urtarrila) 102-112. or.

Zarauzko eta Irungo Nobiziaduan sartu ziren euskaldunen izen-abizenak, Irunen zerbait euskaraz abesten zutela... Eta kito.

20. Mintegiaga, Joan Bautista, nafarra zen, pedagogo bikain eta aitzindari ausarta, Euskal Gobernuarekin eta Eusko Ikaskuntzarekin harremanetan egon zen; Iziar, Jose Mari («Lizier»), azkoitiarra, diseinulari trebea; Oyarzabal, Manuel («aita Manuel», «anaixa»), azpeitiarra, musikagilea, gramatikalaria; Zelaia, Ludobiko Mari, zarauztarra, Eusko Argitaldariaoen senitartekoa; Olabeaga, Iñaki, gazte bat orduan, irakasle trebe eta euskaldun gartsua.

21. La Salle Eneako Euskal Liburutegian gordetzen dira bi eskuizkribuok.

22. Neurri desberdinetan, noski; alde handia zegoen Gipuzkoaren eta Bizkaiairen artean. Hala ere, Bilboko Santiago Apóstol-en, Inazio Oliden eta Santi Elosegi euskara sartzen eta lantzen saiatu ziren, nahikoa tirabira izanarren.

23. Zelaia, Ameriketara; Oyarzabal, Belgikara; Olabeaga, Frantziara; Mintegiaga, Mallorkara.

24. Ikus dokumentazio guztiz interesgarri bat gure aldizkarian idatzi nuen artikulua batetan: M. LASA: «Nace el Distrito de Bilbao. Documentos (I)», in *Unánimes*, 1980 (ekaina), 5-22. orr.

25. Ik. J. OTAEGI: «Distritoak 40 urte», in *Unánimes*, 1981 (urtarrila) 22-26. orr.

26. Zarautzen birritan argitaratua, gero beste ikastetxeetara hedatua; Zumarragan horrelako zerbait ere bazegoen argitaraturik. Gero, J. P. Basterretxea probintzialak Irungo La Salle Enean sartuko du, biztanle guztientzat.

27. N. Alzolak beti izan du estilo leun eta sarkor bat; batere indar txarrik gabeko hitzok, ordea, bazekiten eraginkor bihurtzen. Apalkiro, ideiak sujeritzen zituen, bideak proposatzen zituen, halako edo bestelako ekin-tzak begi aurrean jartzen zizkizun.

28. Ikus M.-B. ALTZOLAKOA: «Euskal Bibliographia oharrak. Salletarren 'Destellos Lasalianos' aldizkariaren euskarazko gehigarria (1952-1954)», in *BRSBAP* (1977) 579. or.

M.-B. ALTZOLAKOA: «Euskal bibliographiarako oharrak: «NORA...?» hileroko bokazio-orria (Lehenbiziko garaia: 1955-1958), ibid., 584. or.

29. Ikus JAKIN 21, 78. or. eta urte haietako aldizkarian, Salamancatik bidaliriko artikulua. San Pio X-eko liburutegiak (orain, Madrilen dago garai batean «Estudios Lasalianos» haietako liburutegia) Mikelek erabili eta utzitako Itxaropenak argitaraturiko hiztegiak gordetzen ditu.

30. *Unánimes* izenekoa.

31. Jose Ramon Zamalloa aitzindariak, langile eta borrokalaria izanik eta euskaltzale argi eta sutua, bere inguruan elkartzen zituelarik.

32. *Cantoral Vasco* eta *Eguberri abestiak* argitaratu ziren 1966an: Martin Lasak, Felix Ezamak, Joxe Erzibengoak.

33. Textu-liburu bat argitaratu zuen horretarako, polikopiaz.

34. José R. Zamalloa, Pedro Arranbide, I. Olabeaga, Patxi Ezkiaga... han zirelarik: *Enlace Colegial* euskaraz bideetan sarreazi zuten eta irakas-kuntzarako *Jo. Euskera nola ikasi* idatzi zuten (P. Arranbidek, Arruza jau-nak eta L. Akesolok orrazturik).

35. Erdaraz, J. R. Zamalloak egina; euskaraz, J. M. Agirrezabalagak.

36. Koadernotxo batzu prestatu zituen J. M. Agirrezabalagak (Aingeru Castañosen laguntza zuelarik) Salamancan, M. Lasak musika-lana prestatzen zuen Donostian, eta elkarteetara bidaltzen ziren noizbehinka. Gero liburu osotu eran argitaratu genuen 1971n.

37. Giro plurilinguistiko batean sortua da ikasbide hau; apunte eran erabili zen hiru edo lau urtetan zehar; 1976an, Mensajero argitaletxearen bitartez inprimatu egin genuen.

38. 1979an, Zarautzik Irungo La Salle Eneara ekarri genuen.

39. Jabe desberdinenak dira: *Gipuzkoan*: OHoko 9 (7, Guraso-Elkar-te, Enpresa edo antzekoenak: Legazpi, Zumarraga, Beasain, Andoain, Mendiolabe-Donostia, Eibar, Zarautz; 2, lasalletarrenak: Irun, Donostia); BBB-UBIko 3 (1, Elkartate batena: Eibar; 2, lasalletarrenak: Irun, Donostia); LHko 3 (2, Elkartate eta enpresenak: Andoain, Zumarraga; 1, lasalletarrena: Irun). *Arabian*: LHko 1 (Udaletxearena: Laudion). *Bizkaian*: OHoko 3 (1, Estatuarena, gozamenen utzia: Sestao; 1, lasalletarrena: Deustu; 1, elizarena: Gordoxola); BBB-UBIko 1 (Lasalletarrena: Deustu). *Nafarroan*: LHko 4, Nafarroako Foru Aldundiarenak (Lakuntza, Iruñea, Irunberri, Orreaga).

40. Azken urte hauetan Euskal Batzordearen eta Elebitasunerako Idazkaritzaren ardura Martin Lasak darama.